

LEZAMAKO UDALEKO KULTURA ARLOKO IKASTAROAK, TAILERRAK ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Lezamako Udalak Ordenantza hau egin du Kultura Arloak antolatutako ikastaroen, tailerren eta jardueren eskaintza eraentzeko.

Ordenantzak honako xede hauek ditu:

- 1- Udal-lokalen erabilerari nahiz ikastaro/tailer/jarduera bakoitzari aplikatu behar zaion erabilera eta funtzionamendu orokorrerako araudi bat sortzea.
- 2- Baldintza bereziak garatzea, alderdi hauen inguruan:
kostua/ikastaroa/ordu kopurua; alta eta baja ematea; izena emateko aldiak eta datak; baimendutako gehieneko eta gutxieneko parte hartzaileak; erabiltzaileen gutxieneko adina; salbuespenak; hobariak edo prezioen murrizketak, hala badagokio...
- 3- Azkenik, aipatutako ikastaroetan, tailerretan eta jardueretan izena emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoak zehaztea.

I. TITULUA

ERABILTZAILEENTZAKO ARAUAK

I. ATALA

MATRIKULAZIO-ARAUAK

1. artikulua— *Ikastaroetan edo tailerretan matrikulatu edo izena ematea*

Matrikulatu edo izena emateko, lehentasun-hurrenkera hau kontuan hartuko da:

- 1- Lezaman erroldatutako herritar guztiak.
- 2- Lezaman erroldatuta ez dauden pertsonak, betiere erroldatutako pertsonen izena eman ostean hautatutako ikastaroan edo tailerrean toki libreak baldin badaude.

16 urtetik gorako pertsonak baino ez dira onartuko (adin hori betetzen duten egunetik aurrera).

Datu horiek udal-bulegoetan egiaztatuko dira udal-erroldaren bidez.

Izen-ematea Udalak berak dagokion deialdian ezarritako egunetan gauzatuko da, behin deialdia argitaratzen denean.

Horretarako, interesdunak dagokion inprimakia behar bezala bete eta udal-liburutegian aurkeztu beharko du. Egin nahi den ikastaro eta tailer bakoitzeko inprimaki bat aurkeztu beharko da. Ikastaroan edo tailerrean eskuratutako tokia pertsonala eta besterenezina da.

2. artikulua— *Ikasle edo erabiltzaile izaera eskuratzea*

Ikasle edo erabiltzaile izaera eskuratzeko, interesdunak berak formalizatu beharko du matrikula. Horretarako, izena emateko inprimakia bete eta izenpetu beharko du.

Adingabeen kasuan, adingabearen legezko ordezkariak aurkeztuko du.

Izena emateko inprimakia aurkeztu eta entregatuz gero, eskatzaileak Ordenantza honetan araututako arauak onartzen dituela ulertuko da.

3. artikulua.— *Hutsik dauden tokiak*

Ikastaro bat betez gero, erreserba-zerrenda bat egingo da hutsik geratzen diren tokiak betetzeko.

4. artikulua— *Izena eman dutenen gutxieneko kopurua*

Ikastaro bakoitzean gutxienez zortzi pertsonak eman beharko dute izena. Ikastaroren batean gutxieneko kopuru hori lortzen ez bada, ez da ikastaroa egingo.

5. artikulua— *Izena eman dutenen gehieneko kopurua*

Ikastaro bakoitzean izena eman dezaketen ikasleen gehieneko kopurua ikastaroaren ezaugarrien eta tokiaren arabera izango da. Kasu bakoitzean gehieneko kopurua modu independentean zehaztuko da.

6. artikulua— *Ikastaroen eta tailerren programa aldatzea*

Lezamako Udaleko Kultura Arloak ikastaro eta tailerren programa aldatzeko eskubidea izango du.

7. artikulua— *Izena emateko epea*

Izena emateko epea 15 egun baliodunekoa izango da. Kasuan kasu, informazioa jendaurrean jarriko da ikastaroaren hasiera- eta amaiera-datak adieraziz.

8. artikulua— *Ikastaroen edo tailerren publizitatea*

Ikastaroak edo tailerrak honela emango dira argitaratu:

1- Udal-aldizkaria.

2- Udal-webgunea.

3- Udalaren sare sozialak.

4- Horrez gain, Lezamako Udalak, egokitzen jotzen badu, prentsa-oharrak argitaratu, kartel espezifikak egin eta idatzizko komunikabideetan, irratian eta egokitzen jotzen dituen bestelako komunikabideetan publizitatea jarri ahal izango du.

9. artikulua— *Izen-emateen gehieneko muga gainditu duten ikastaroak edo tailerrak*

Ikastaro edo tailer batean gehieneko plaza kopurua gainditzen baldin bada, zozketa publiko bat egingo da izen-ematea epe eta forma egokian aurkeztu duten pertsona guztien artean.

Lezamako Udalak zozketa hori egiteko modua zehazteko eskubidea dauka. Zozketan irizpide bakarra hartu beharko da kontuan: Lezaman erroldatuta dauden pertsonen lehentasuna izango dute.

II. ATALA

KUOTAK

10. artikulua— *Kuoten ordainketa*

Ordaindu beharreko kuoten hiruhileko zenbatekoa berbera izango da ikastaroa edo tailerra egiten den hiruhileko guztietan, hiruhileko bakoitzeko jarduera-egun kopurua gorabehera. Zenbateko hori ikastaro bakoitzeko ordu kopuruaren arabera prezio publiko progresiboak kontuan hartuta ezarriko da, **I. eranskinean** jaso den moduan.

Ikastaro eta tailer bakoitzari dagokion kuota hiruhileko bakoitzaren hasieran ordainduko da, helbideratutako banku-ordainagiriaren bidez.

11. artikulua.—*Sortzapenak*

Edozein ikastaro edo tailerretan parte hartzeko eskaera egiten denean, idatziz izena ematerakoan, prezio publikoa sortzen eta berau ordaintzeko betebeharra sortzen da.

12. artikulua— *Bajak*

Ikastaro edo tailer batean baja eman nahi duen pertsona orok horren berri eman beharko du idatziz. Horretarako, udal-liburutegian momentuan bertan entregatuko zaion agiri espezifikoa bat aurkeztu beharko du. Matrikulatu den hiruhilekoa hasten denetik gehienez ere hamabost egun igaro ahal izango dira baja eman ahal izateko. Hamabost egun horiek hiruhilekoaren lehen ikastaro-egunetik aurrera zenbatzen hasiko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea igaro ostean ikastaro edo tailer batean baja emateko eskatuz gero, ez da hurrengo hiruhileko naturalari dagokion kuota itzuliko.

14.1. Justifikatu gabeko ez etortzeak.

Ikastaro edo tailer bateko ikasle edo erabiltzailearen batek hiruhilekoaren lehenengo hilabeteko saio-kopuruaren erdira edo gehiagora justifikatu gabe etortzen ez bada, ikastaro edo tailer horretan baja emango zaiola ohartaraziko zaio.

Hiruhilekoaren bigarren hilabetean, berriro ere saio-kopuruaren erdira edo gehiagora justifikatu gabe huts egiten badu, alde aurretik ohartarazpena jaso duen ikasleari edo erabiltzaileari baja eman ahal izango zaio, baina ez zaio une horretara arte ordaindutako kuoten alde proportzionala itzuliko.

Horrenbestez, ikastaroaren saio guztien % 60ra joatea eskatuko da.

Gaixotasun baten ondorioz edo ezinbesteko bestelako arrazoiengatik (lana, pertsonala...) ikastarora huts egitea justifikatu egin beharko da. Horrek ez du ikaslea edo erabiltzailea prezio publikoak ordaintzeko betebeharretik salbuetsiko; horrenbestez, ez da matrikularen zenbatekoa itzuliko, artikulua honen lehenengo paragrafoan adierazi bezala, epe eta forma egokian baja ematea eskatu ezean.

14.2. Ikastaroan edo tailerrean parte hartzeko itxarote-zerrenda baldin badago, aurreko paragrafoan aipatutako ikasle edo erabiltzailearen bajaren berri emango zaio itxarote-zerrendako hurrengo pertsonari, ikastaro edo tailer horretan parte har dezan.

13. artikulua— *Ordaintzeke dauden kuotak eta ordainagiriak itzultzea*

Behin ikastaroa hasten denean banketxeek dagokion ordainagiria itzultzen baldin badute, eta ikasleak edo erabiltzaileak ez badu ordainketa erregularizatzen edo baja behar bezala justifikatzen ez badu, ezin izango du ikastaroan edo tailerrean parte hartzen jarraitu eta bertan behera utzi beharko du.

Aurreko ekitaldietako atzeratutako kuotak ordaindu gabe dituztenek ezin izango dute Lezamako Udalak antolatutako ikastaro edo tailerretan izenik eman kuotak ordaindu arte.

14. artikulua — *Ikastaroen edo tailerren zenbatekoaren publizitatea*

Ikastaro edo tailer bakoitzaren zenbatekoa deialdiaren dagokion iragarkiarekin batera jakinaraziko da, ordenantza horren 7. eta 8. artikuluen arabera.

III. ATALA

IKASTAROAK ETA TAILERRAK GARATZEA

15. artikulua— *Iraupena*

Ikastaroek edo tailerrek urtebeteko iraupena izango dute (urtarriletik ekainera eta urritik abendura). Uztailean, abuztuan eta irailean ez da ikastaro edo tailerrik egingo.

Hiru hilez behin edo urte osorako (3 hiruhileko) eman ahal izango da izena.

Hortaz, eskolak honako hilabete hauetan emango dira:

- 1.- Urtarriletik martxora
- 2.- Apiriletik ekainera
- 3.- Urritik abendura

Izena ematerako unean indarrean dagoen hiruhilekoko egutegi bat emango zaie erabiltzaileei. Bertan markatuta egongo dira eskola-egunak, jaiegunak eta oporrak edota zubiak, halakorik egonez gero.

16. artikulua— *Lekuak*

Ikastaro edo tailerretan, gutxienez, 8 pertsona egongo dira, eta gehieneko lekuen kopurua kasu bakoitzaren arabera izango da, hau da, ikastaroaren eta ikastaroa emango den lokalaren toki-kopuruaren eta ezaugarrien arabera.

Eskolaren dinamikari eta erabiltzaileen ikasteko prozesuari kalte egiten ez bazaie, ikastaro bakoitzerako zehaztutako lekuen kopurua aldatu ahal izango da, betiere, irakasleen iritzia aintzat hartuta eta lokalaren ezaugarriak kontuan izanda.

17. artikulua— *Ordutegiak ezartzea*

Lezamako Udaleko Kultura Arloak zehaztuko ditu ikastaro eta tailerren egunak eta ordutegiak.

18. artikulua— *Galdeketa ikastaro edo tailerren amaieran*

Ikastaroa amaitzen denean, ikasle edo erabiltzaileei galdeketak egingo zaizkie Lezamako Udaleko Kultura Arloak egokien deritzon moduan, eta hurrengo ekitaldian ikastaro edo tailerra egiteari eta haien balorazioari buruz galdetuko diete. Gainera, beste ikastaroren bat gehitzeari buruz galdetuko zaie.

19. artikulua- *Ikastaroak eta tailerrak bertan behera uztea eta aldatzea.*

Lezamako Udaleko Kultura Arloak edozein ikastaro edo tailer aldatzeko edo bertan behera uzteko eskubidea edukiko du.

IV. ATALA

IKASLEAK ETA ERABILTZAILEAK

20. artikulua— *Arauk betetzea, errespetua eta bizikidetz*

Ikasleek edo erabiltzaileek ikastaro edo tailerreko irakasleak ezartzen dituen arauak bete beharko dituzte, eta elkarri errespetua erakutsiko diote, bai eta gainerako ikasle edo erabiltzaileekiko ere.

21. artikulua— *Materiala zaintzea*

Ikasleak edo erabiltzaileak arduratuko dira parte hartzen duten ikastaro edo tailerrean erabiltzen den materiala zaintzeaz.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza onetsi eta gero sartuko da indarrean, Tokiko Araubidearen Oinarria arautzen dituen 7/1985 Legearen 70-2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Lezaman, 2017koaren(e)(a)n.— Alkatea

I. ERANSKINA
PREZIO PUBLIKOAK

ERROLDATUTAKOAK

Ikastaroaren ordu-kopurua astean	Hiruhilekoaren prezioa
1 ordu	35 €
1,5 orduz	41 €
2 orduz	43 €
3 orduz	50 €
4 ordu edo gehiago	53 €

ERROLDATUTA EZ DAUDENAK

Ikastaroaren ordu-kopurua astean	Hiruhilekoaren prezioa
Ordubete	48 €
1,5 ordu	61 €
2 ordu	72 €
3 ordu	79 €
4 ordu edo gehiago	86 €